


Paziente eta senideentzako gidaliburua
Onkologia Erradioterapikoko
Zerbitzua

Guía para pacientes y familiares
Servicio de Oncología Radioterápica



DONOSTIA OSPITALEA
HOSPITAL DONOSTIA



Gidaliburu honen bidez, Donostia Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuko langileok erradioterapia zer den ondo ulertzeko beharrezkoa den informazioa eskaini nahi dugu. Esperientziak erakutsi digu ezezagunaren aurrean sortzen diren beldurrak uxatzeko eta elkarren arteko lankidetzaz ezartzeko, informazioa ematea beharrezkoa dela. Ez duzu ahaztu behar zerbitzu honetan lan egiten dugunok zure galderei erantzuteko prest gaudela eta elkarri zuei tratamendurik eraginkorrenetako bat dela.

Con esta guía, el personal del Servicio de Oncología Radioterápica del Hospital Donostia le ofrece la información necesaria para que comprenda qué es la radioterapia. La experiencia nos ha demostrado que la información es la mejor aliada para disipar los temores que surgen del miedo a lo desconocido y para establecer la necesaria colaboración mutua. No olvide que todas las personas que trabajamos en este servicio estamos a su disposición y que el diálogo constituye uno de los elementos esenciales para un tratamiento eficaz.

ZER DA ERRADIOTERAPIA?

Erradioterapia protokolo onkologiko gehienetan erabiltzen den oinarrizko tratamenduetako bat da. Gutxi gorabehera pazienteen %60ri ematen zaio.

Erradioterapiak energia handiko erradiazio ionizatzaileak erabiltzen ditu; terapia lokal eta erregionaltzat hartzen da eta eragina emandako lekuan bakarrik izaten du. Bi erradioterapia-mota daude: kanpoko eta barnekoa.

Kanpoko erradioterapian, makina batek, gure kasuan gorputzetik distantzia batera dagoen partikuletako azeleragailu lineal batek, erradiazio-sorta zuzentzen dio lesioari.

Barneko erradioterapia tratamendu-teknika da eta tratatu beharreko aldean isotopo erradioaktiboak sartzen dira aldi baterako edo betiko.

QUÉ ES LA RADIOTERAPIA

La radioterapia es uno de los tratamientos básicos en la mayoría de los protocolos oncológicos. Se aplica aproximadamente en el 60% de los pacientes.

La radioterapia utiliza radiaciones ionizantes de alta energía considerándose una terapia local y regional, es decir, actúa únicamente en la zona en que se administra.

Básicamente, existen dos variaciones de radioterapia: externa e interna. La radioterapia externa consiste en una máquina, en nuestro caso un acelerador lineal de partículas, situada a cierta distancia del cuerpo, que dirige un haz de radiación sobre la lesión. La dosis total de radiación se reparte en sesiones.

La radioterapia interna es una técnica de tratamiento que introduce en la zona a tratar isótopos radioactivos, de forma temporal o permanente.



ERRADIOTERAPIAREN FUNTZIONAMENDUA

Erradiazioek galarazi egiten dute zelulek hazteko eta ugaltzeko duten gaitasuna. Frogatuta dago gaixo dauden zelulak hobeto erantzuten diotela tratamenduari. Osasun onekoak ere, tratamenduan zehar, kaltetu egiten dira, baina bizkortzeko ahalmena gaixo dauden zelulena baino handiagoa da.

Erradioterapiaren eraginkortasuna gaixo dauden zelulei dosi egokiak ematean datza, osasun oneko zelulak ahal den gutxien kaltetuz.

Tratamendu oso batek astebete eta zazpi aste bitarteko iraupena izan dezake, prozesu onkologikoaren mota, tamaina eta kokalekuaren eta osasun-egoeraren arabera; inportantea da ere beste tratamendurik hartzen ari den ala ez.

CÓMO ACTÚA LA RADIOTERAPIA

Las radiaciones inhiben la capacidad que tienen las células para crecer y multiplicarse. Está perfectamente comprobado que las células enfermas son más sensibles a estas radiaciones que las células sanas. Las células sanas, dentro del volumen de tratamiento, también se dañan, pero su poder de recuperación es mayor que el de las células enfermas.

La eficacia de la radioterapia consiste en administrar la dosis adecuada a las células enfermas, produciendo el menor daño posible a las sanas.

Un tratamiento completo puede durar entre una y siete semanas en función del tipo, tamaño y localización de su proceso oncológico, estado general de salud o si está recibiendo otros tratamientos.

ERRADIOTERAPIA URRATSEZ URRATS

- 1** Lankidetza-eskaera: Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuan lankidetza-eskaera jasotzean, lehenengo bisitarako hitzordua ematen da.
- 2** Lehenengo bisita: esleitutako mediku espezialistarekin izango duzun lehen harremana da. Medikuek horrek historia klinikoa eta zure egoera aztertuko ditu, erradiazio ionizatzaileen bidezko tratamenduarekin hasi ahal izateko.
Komenigarria da bisita honetan ahal den informazio gehiena ematea: erradiografiak, txostenak edo egindako beste edozein proba.
Erradioterapia hartzeko agindua onkologia erradioterapikoan aditua den mediku batek egin behar du. Behin tratamendua ezarri gero, mediku arduradunak ezaugarrien, ekar ditzakeen abantailen eta izan litekeen albo-ondorioen berri emango du. Informazioa eman eta galdera guztiak erantzun ostean, baimen informatuaren orria sinatu beharko duzu eta tratamenduaren simulazioa egiteko hitzordua emango zaizu.

RADIOTERAPIA PASO A PASO

- 1** Solicitud de colaboración: cuando se recibe una solicitud de colaboración en el Servicio de Oncología Radioterápica se indica una fecha de citación para la primera visita.
- 2** Primera visita: Es el primer contacto que tendrá usted con el médico especialista asignado. Dicho médico examinará su historial clínico así como su estado actual con el fin de poder indicar un tratamiento con radiaciones ionizantes.
Es conveniente aportar en esta primera visita la mayor cantidad de información posible, tanto informes como radiografías y otras pruebas que le hayan realizado.
La indicación definitiva de Radioterapia la tiene que realizar un médico especialista en Oncología Radioterápica.
Establecido el tratamiento, su médico responsable le informará de las características del tratamiento, de los beneficios que puede aportar y de los posibles efectos secundarios. Después de esta información y de responder a todas las dudas que tenga, deberá firmar la hoja de consentimiento informado, adjudicándole una cita para la simulación del tratamiento.



TRATAMENDUAREN SIMULAZIOA

Simulazioa tratamenduaren bolumenak mugatzean eta bere baldintzekin probak egitean datza. Horregatik oraindik ez da tratamendua.

Posizio jakin batean jarriko zaizu eta berdina izango da saio guztietan. Erlaxatu behar duzu eta garrantzitsua da geldirik egotea, horregatik, zenbait kasutan, immobilizazio-baliabideak erabiltzen dira, esaterako, maskarak, hutseko koltxonetak, falkak (ziriak), buru-euskarriak, etab.

Mediku espezialistak eta erradioterapiako teknikariek tratatu beharreko aldeak mugatuko dituzte zehatz-mehatz. Horretarako, erradiografiak eta, behar izanez gero, tomografia bat eskatuko da.

Simulazioak dirauen bitartean, erreferentzia-puntu batzuk markatuko dira, gorputzean (ezabatu ezin diren tatuajeak). Oso inportantea da azalean egin diren markak ez ezabatzea, harik eta tratamendua bukatu arte.

SIMULACIÓN DEL TRATAMIENTO

La simulación del tratamiento consiste en localizar los volúmenes del tratamiento y ensayar las condiciones del mismo. Por lo tanto, no es aún el tratamiento.

Se le colocará en una posición determinada, que será la misma para todas las sesiones. Tiene que relajarse y es importante un correcto funcionamiento, por lo cual en algunas ocasiones se emplean elementos de inmovilización como mascarillas, colchonetas de vacío, cuñas, reposa-cabezas, etc.

El médico especialista y los técnicos de radioterapia delimitarán y marcarán con exactitud las zonas a tratar. Para ello utilizarán radiografías y, si es necesario, se pedirá un TAC.

Durante la simulación, le marcarán puntos (tatuajes que no se pueden borrar) que luego servirán de referencia para su correcto tratamiento. Es muy importante que las marcas que le realicen en la piel no se borren y permanezcan durante todo el tratamiento.

TRATAMENDUA

Lehen saioa luzeagoa izaten da zenbait proba egin behar baitira erradiografiekin. Hurrengoak egunero egingo dira (larunbat, igande eta jai-egunetan izan ezik) eta, tratamenduaren zailtasunaren arabera, iraupena 10-20 minutukoa izango da.

Denbora gehiena pazientea mahaian ondo jartzen eta alderdi teknikoak zaintzen ematen da, beraz, irradiazioak berak denbora gutxi hartzen du.

Pazienteak egin behar duen gauza bakarra da tratamendu-mahaian etzanda eta mugitu gabe egotea eta esaten diotena egitea. Erradioterapia ematen dioten unean, teknikariek gelatik alde egiten dute eta telebista-zirkuitu itxi baten kontrolatzen dute pazienteak.

Nahiz eta saioak dirauen bitartean ezer nabaritu ez, tratamenduak aurrera egin eta saioak hartu ahala, alboondorioak azaltzen hasten dira, horregatik tratamendua jasotzen duten pazienteentzako berrikusketa astean behin egiten da.

TRATAMENDUA BUKATZEA ETA JARRAIPENA

Tratamendua bukatzean, eginiko tratamenduari buruzko txostena bidaliko zaizu postaz eta gorde beharko duzu beste espezialista batek eskatuz gero, erakusteko, eta zure informaziorako.

Jarraipenari dagokionez, Onkologia Erradioterapikoan aditua den mediku espezialistak hilabeteko epean hitzordua emango dizu azterketa egiteko.

TRATAMIENTO

La primera sesión suele tener una mayor duración, pues hay que efectuar comprobaciones con radiografías. Las sucesivas sesiones se realizarán diariamente a excepción de sábados, domingos y festivos y con una duración aproximada de entre 10 y 20 minutos en función de la complejidad del tratamiento.

La mayor parte de este tiempo se emplea en la colocación del paciente sobre la mesa, su alineación y en aspectos técnicos, por lo que una mínima parte es la que se emplea en la propia irradiación.

Lo único que tiene que hacer el paciente es mantenerse tumbado e inmóvil en la mesa de tratamiento y seguir las instrucciones que le vayan dando. En el momento en que se va a administrar la radioterapia, los técnicos salen de la habitación y controlan al paciente a través de un circuito cerrado de televisión. Aunque durante la sesión no se nota nada, a medida que el tratamiento va avanzando y se acumulan las sesiones recibidas, comienzan a aparecer algunos efectos secundarios, estando así prevista una revisión, generalmente semanal, de los pacientes en tratamiento.

FINALIZACIÓN DEL TRATAMIENTO Y SEGUIMIENTO

Al término del tratamiento, se le enviará por correo un informe que deberá guardar para cuando otro especialista se lo pida y para su propia información. En cuanto al seguimiento, el médico especialista en Oncología Radioterápica le adjudicará una cita de revisión en un intervalo aproximado de un mes.



Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzua
Servicio de Oncología Radioterápica

Komunikazio Unitatea
Unidad de Comunicación

Donostia Ospitalea
Hospital Donostia